

#JesusGureanEreBidelagun NERABEZAROAK

DELEGACIÓN DE ANUNCIO Y CATEQUESIS
FEDE ZABALKUNDE ETA KATEKESIRAKO ORDEZKARITZA

"Musikak sentimenduak adierazten laguntzen digu; abesti honek batzuk jasotzen ditu Pazko garai honetan"

BEGIRATU

[Sakatu hemen abestia entzuteko](#)

Jesusek esan zien: Zatozte nirekin (Mt 4, 19)



#JesusGureanEreBidelagun

Gaur egun, ohikoa da pertsonaia publikoek, esate baterako, politiko, abeslari, aktore eta kirolariak, milaka eta milioika jarraitzaile izatea sare sozialetan; inguruan ere, ezagutzen dugu jarraitzaileak pilatzea gustuko duen bat baino gehiago. Frantzisko Aita Santuak 17 milioi baino gehiago ditu Twitterren eta 6,5 milioi lagunek egunero bisitatzen ditu bere argitalpenak Instagramen. Pertsonaia entzutetsu horiek eragin handia izan dezakete jendearen iritzi eta pentsamenduan.

Jesusen garaian, ikasleek Lege-maisuarengana jotzen zuten harengandik argibideak eta irakatsiak jadedesteko, fede-ibilbidean aurrera egin eta Maisu bihurtu ahal izateko. Nazareteko Jesusek ere izan zuen ikasle eta jarraitzaileen taldea. Jarraipen horrek antzekotasunak eta aldeak ditu gaur egungo gizarte sareetan gertatzen den jarraipenarekin. Jesusen ikasleek fedean bat egiten zuten Harekin eta bere ideia eta proposamenak jarraitzen zituzten, batik bat, Berri Onaren irakaspenari eta sufritzen ari zirenei laguntzeari lotuta.

Jesus beti dago gurekin. Beti dogu lagun.
Berarekin joateko dioskunean... zertaz ari da, zure ustez?

Bera bizi izan zen bezala, gainerako pertsonen esanetara, gehien behar dutenei lagunduz, bizi gaitzela proposatzen digu.

Zure ustez, aparteko zerbaitek gertatu behar du ala zure bizitzan makina bat aukera dago Nazareteko Jesusen atzetik jarraitzeko?



Jesusek ez zuen une garrantzitsuetan bakarrik jarduten; eguneroko bizitzan zuen pertsonetikiko hartu-emana. Bidean, azokan, bazkari batean, sinagogan, kalean...



Emauserako bideko kontaktetan sakonduko dugu (Lk 24, 13-35)

Sakatu hemen irakurtzeko

Hiru une: Ikasleak kezkatuta zeuden
Jesus agertzen zaie eta beraiekin bidean jarraitzen du
Ogia zatitzean ezagutu eta beraiekin gelditzeko eskatzen diote

Uste dut, hainbat aldiz eta erraturik, Jainkoa bakarrik une berezietan aurki dezakegula pentsatzen dugu. Sakon otoitz egiten dugunean edo naturaz gaindiko mirariak gertatzen direnean. Jainkoa horietan ere agertzen da, baina ondoan dugu ematen dugun urrats bakoitzean ere.

Eguneroko egoerak non Jainkoa agertzeraz ematen zaigun:


- ▷ Nahiz eta une zailak bizi, nire bizitza opari dela sentitzen dudanean
- ▷ Nire dohainak, ni neu naizena, daukadana, egiten dakidana, besteei oparitzen 826980 ditzkiedanean
- ▷ Egunaren amaieran, otoitz egiten dudanean bizi izandako on guztiagatik eskerrak emanez
- ▷ Inguruko atsekabe eta sufrimenduaz jabetzen naizenean
- ▷ Izadiari begiratzean, Kreaioa zaindu egin behar dudala konturatzen naizenean
- ▷ Gaizki egin dudana damutzeko gauza izan eta zuzentzen saiatzen naizenean
- ▷ Inork eskatu gabe, trukean ezer espero gabe laguntzen dudanean
- ▷ Adiskidetasunagatik, adiskideengatik, elkarrekin bizi ditugun une eta oroitzapenen gatik eskerrak ematen ditudanean
- ▷ Bakarrik ez nagoela eta sakon-sakonetik zaintzen nautela sentitzen dudanean.

Eguneroko bizitzako beste zein unetan aurkitu duzu zuk?

OTOITZEAN

Bilatu leku lasaia, barneko eta kanpoko isiltasuna izan dadila (...),
hartu arnasa sakon (...)
eta Jainko Aita-Amaren presentzia onbera isur dadila zeure gainera.

Jesus
Zuregan sinets dezagula
benetako, aske eta solidario
izan gaitezen
bizitzako une guztietan;
atera gure bila egunero,
uxatu gure beldurrak eta ireki gure begiak eta bihotza
gure artean senti zaitzagun.



Une zailak bizi ditugu, bai bakarka eta bai gizarte bezala ere. Itxita daude ikastetxeak, bulegoak, dendak, elizak, zine eta museoak; bertan behera geratu dira lehiaketak, kontzertuak, jaiak... eta barruan bizitzen hasi gara, etxean konfinaturik eta etxetik atera gabe.

Aldi honetan, pertsona guztiak beren lan eta egitekoetan guztiz beharrezko eta baliotsu direla ikusi dugu; makina bat lagun oso gaizki pasatzen ari dela ere ezagutu dugu; eta, seguruenik, beste balio bat ematen diegu lehen hain garrantzitsu edo baliotsu ez ziren gauzei.

Hauxe proposatzen dizuegu: Diruz erosten ez diren gauzei balioa eman eta ingurukoei oparituko dizkiegu. Delako pertsona horiek animatu egingo dira, danok dugulako gustuko opariak jasotzea.

Diruz erosten ez diren, opariak.

Entzutea

Baina benetan entzun, etenik gabe, arrausirik gabe, kritikatu gabe. Bakarrik entzun.

Maitatzea

Musuak, besarkadak eta estutuak. Ekintza txiki horiek zure familiarenganako maitasuna adierazten dute.

Irribarrea

Bete zure bizitza irudi irribarretsuez, irribarre egin beti!

Idatzitako oharrak

Esate baterako, “eskerrik asko laguntzeagatik”. Horrelako gauza txikiak beti oroitzen dira eta tristuraren ordeztasuna jartzeko baliagarri izan daitezke.

Konplimendua

Honakoak esan: “Primeran ikusten zaitut...”, “Ondo egina”, “Eskerrik asko...” o “benetan gozoa zegoen jatekoa”

Mesedea

Egunero mesederen bat egiten saiatu.

Adiskidetasuna

Erakutsi adiskideei gogoan dituzula, estimatzen eta gogoratzen dituzula...

ZER PROPOSATZEN DIZUGU?

Taula egin orrialde batean; ezkerreko zutabearen, proposatu dizkizugun oparien zerrenda idatzi eta eskuineko zutabearen, oparia nori egin diozun, noiz eta nola jaso zuen... Egun batzuen buruan taula batera jarri taldean.